

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
65 urtetik gorakoei
omenaldia /08

HIRIGINTZA
Oztopo arkitektonikoak
deuseztatzen /09

LEINTZ GATZAGA
Rosario kaleko
jaiak /10

MOZAMBIKETARREN LAGUNA

ENERITZ PAGALDAI ARETXABALETAKO
KOOPERANTEAREKIN EGON GARA...



GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 11
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 12
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postebrea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK	
SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (0nati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
(Urriaren 19tik aurrera bi meza izango dira
lehen bezala: 11:00etan eta 12:00etan)
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
AREANTZA
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Zapatuan 12:00etan. Otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

DANTZA AFRIKAR IKASTAROA
Burkina Fasoko lagun batek dantza afrikar ikastaroa emango du. Eskolak martitzenetan izango dira, azaroaren 4an hasi eta abenduaren 9ra bitartean, Kurtzebarri eskolan. Izena emateko Azkena tabernara joan behar da.

GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIALDIA

Urriaren 19an, domekan, VII. Gastronomia eta Folklore Jaialdia egingo dute Herriko Plazan. Jaialdia Kiub-ek antolatuta du. Galiziako eta Errioxako taldeak etorriko dira Donostiatik, Gaztela eta Leongo taldea Laudiotik eta Extremadurako eta Andaluziako taldeak Arrasatetik. Aurten, jotak abesten dituen taldea ere egongo da, Autol herritik etorrita. Horrez gainera, Patxaran Lehiaketa egingo dute, urtero moduan.

ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETA-N
Aretxabaletarrei ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu tarte egokia.
Deitu edo bidali zure oharra:
Tel.: 943 79 86 21
E-postaz: aretxagazeta@goiena.com

LORAMENDIRENAGENDA

IGELAREN BANDA
Datorren eguenean, urriak 16, Igelaren Banda egongo da udaletxe zaharrean, 22:00etan. Euskal doinu tradizioaletatik abiatuta jazz ukitua duten doinu berriak sortzen dituen banda.

ESKULAN IKASTAROK
Aurreko urteetan moduan eskulan eta bainika ikastaroak hasiko dituzte laster. Izen emateko azken eguna urriaren 13an izango da.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Urriaren 17an onartu zuten 1994ko aurrekontua

Udazkenean onartu zuten orain dela 9 urte udal aurrekontua: urriaren 17an, hain zuzen ere. Bigarren aldiz aurkeztu behar izan zuten osoko bilkuran, eta orduan ere EAJko hiru zinegotzien aurkako botoa jaso zuen. Hiru haien iritziz aurrekontuak ez zituen herritarren beharrak asetzen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pikatxoa"

Bidegintzan eta erabiltzen den lantresna.
—Kalian ganora barik dabitzen gaztietatik pikatxoa ta palia emongo noskiek.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Ana Nevado
30ean. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Amaier Iñurrieta
5ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jon Ander eta Unai Mendieta
6an eta 8an. Zorionak eta muxu handi bat! Amatxo.



ESKORIATZA
Oihana eta Haizea Arana
12an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bana, gurasoen eta laguntxo guztien partetik.



ARETXABALETA
Alaija Barandiaran
13an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Olaia Miguelez
13an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko en eta lagunuen partetik.

BABESLEA

FOTOSINTESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 0 URTETIK AUERRERA:**
- 'Sara eta Hartz Handi' / Ute Krause
 - 'Hamar txerrikume' / Léo Timmers
 - 'Tunela' / Anthony Browne
 - 'Hau ametsgaiztoa!' / Lili Pissenlit, Vanessa Gautier
 - 'Bihotz xixtada' / Lili Pissenlit, Vanessa Gautier
 - 'Beti aurrera!' / G. Berca, Laura Reixach
 - 'Denak du konponbidea' / G. Berca, Jana Cando
 - 'Hori aurpegia!' / Patricia Geis
 - 'Pato va en bici' / David Shannon
 - '¡No quiero verte más!' / Isabel Abedi, Silvio Neuendorf
 - 'Hola, mundo' / Michael Foreman
 - 'El pequeño soldado' / Paul Verrept
 - '¡Qué más quisieras!' / Grégoire Solotareff

- 6 URTETIK AUERRERA:**
- El principito Puf / Agnès Desarthe, Claude Ponti

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

EGUZKIGRAF
inprimategia

...egutegiak,
gabonetako tarjetoak,

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com
20550 ARETXABALETA

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Kirol etxien zerbait falta dala uste dozu? Obraren bat egin biherko litzake?



**IMANOL BARINAGA-
RREMERERIA** Langillie




OLAIA URIBETXERRIA Langillie



IMANOL ETXEBERRIA Langillie



ARANTZAZU ZUAZABEITIA Langillie



ASIER LIZARRITURRI Langillie



BEGOÑA BASABE Langillie

Bueno, uste dot nahiko txikitxue dala. Mutillen aldagelak, adibidez, gaizki dauz. Dutzetako batetik bestera ibilli biher dogu. Alde horretatik egingo nittuke aldaketaren batzuk.

Bai, nik igerileku haundi-xaue eta hobbie jarriko neuke. Askotan kaliek eginde egoten die eta ez da egoten igeri egitteko lekurik. Bestela, ez dot askorik ezagutetan kirol etxien egoerie.

Bueno, uda partien ederra izengo litzake kanpoko igerilekue eukittie. Bestela, kirol etxie dauen moduen itxiko neuke. Uste dot Atxalbata moduko herri baten-dako nahikue dala.

Kanpoko igerileku bat falta da, umiendako. Kirol etxeko edifizuei dagokixonez, barrez, goittik behera barriketako premiñie daukola uste dot. Zerbitzu asko zaharkittute geratu die.

Uste dot herrixe zelakue dan kontuen hartuta nahiko kirol etxe txukune daukogule. Balitteke apur bat zahartute egotie. Gimnasioko gauza batzuk barriketie ondo egongo litzake.

Zerbait falta jakon edo ez, ez dakit. Uste dot zona batzuk hobetute dauzela lehengo aldien. Beste batzuk, barrez, konpondu biherrien dauzela uste dot; adibidez, aldagelak.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ORDUZ KANPO Argazkiak azaltzen diren trasteak goizeko bederatziak inguruan atera zituzten. Egileak eguna asmatu zuen, baina ez ordutegia. Izan ere, bolumen handiko trasteak ilunkaran atera behar dira, 20:00etatik aurrera. Herritar baka-rrak beharrez guztiok gauza bera egingo bagenu, txerritoki galantak bihurtuko lirarteke herriko kaleak. /A.L.

ETABARRUAN...

OSOKO BILKURA /04	ELKARRIZKETA /05	KIROLAK /06
Udal-zergen igoera Atzo, eguena, egin zuten osoko bilkuran datorren urterako udal-zergak igotzea erabaki zuten.	Eneritz Pagaldai Mozambikeko Marrupa herrian dago Eneritz, eta egun batzuetarako etorri da bueltan herrira.	Mikel Uribeetxerria Kirol zinegotzi berriari elkarrizketa: herriko kirol taldeen eta zerbitzuen gaineko gogoeta egin du.

ASTEKODATUA

10.818

EURO GASTATU DITUZTE BIDERAGARRITASUN PLANEAN


Udalak 10.818 euro gastatu ditu Herriko Plazaren azpian aparkalekuak egiteko bideragarritasun planean. Plan horren emaitzak erakutsiko du etorkizunean aparkalekua egingo den edo ez.

BESTEKEESANA

“Aralarrek gainerako herrietan izandako jarrera errespetatuz, guk ere ez dugu laugarren zinegotzi postua hartu. Jarrera hori koherentzia minimo batek eskatzen duena da. Gizartearen sektore zabal bat ordezkari batzuek badakigu eta guk aitortzen dugu ordezkari hori beraiena dela. Aretxabaletako kasuan bagenekien laugarren ordezkari hori ez zegokigula guri; beraz, ez dugu hartu gura izan. Badakigu horrek ez duela arazoa konpontzen; hori baino askoz konplikatuagoa da, eta neurri batean, ez dago gura esku. Estatuak alderdi bati ukatu dioen aukera hori legea erabiliz ukatu dio, eta horrek irtenbidea zaila dauka. Hala ere, beti daude elkar ulertzeko bideak.

XABIER SARASUA
Arrasate Irratia/03-10-06

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



*Beti
kexatzen*

Kexatzen hasten garenean laostia gara. Horretan behintzat ez dugu munduan parekorik. Herrian ez dagoela ezer eta horrek kanpora joatera bultzatzen gaituela; Andramaixak gero eta pena gehiago ematen dutela; Aretxabaletan aspaldian ez dagoela martxarik; etxebizitzak garestiak direla; udan bero gehiegi egin duela; udazkeneko eguraldi nahasi hau kaka bat dela...

Guztiak egia direla ere ezin ukatu. Eta kristo guztia kexatzen bada, kristo guztiari axola zaionaren seinale. Bada zerbait behintzat. Baina gakoa da guztion artean zer egiteko prest batean izan daitezen. Eguraldiaren kontuan ezer gutxi, izorratu besterik. Ez dago gure esku. Beste guztia bai, ordea.

Herria dinamizatu eta erakargarri bihurtzeko zeregin handia dago. Hobeto esan, dena dago egiteko orain artean atentzio gutxi eskaini baitzaio

esparru honi. Dena dela, beste arlo batzuetan – ekonomikoan esaterako – gauzak ondo egiteko gauza izan bagara ez dugu zalantzan jarri behar hau ere aurrera ateratzeko gai izango garela. Denon ahaleginak bide berean zuzentzen baditugu behintzat. Udaletxearena. Kultura eta kirol elkarre-

teena. Herritarrena.

Beste kontu bat da etxebizitzarena. Hemen herritarrok zeresanik gutxi daukagu, baina udaletxeak badauka bere eskuetan bitartekorik prezioen etengabeke igoserari nolabaiteko

frenoa jartzeko. Nahi izanez gero bederen. Behin lortu zen, Markoleko etxeak egin zituztenean. Kontrakoa diotenak ez daki ondo zertan dabilen. Eta orain aukera berri bat daukate, baldin eta inizatiba guztia promotore pribatuaren eskuetan utzi beharrez beraiek hartzen badute.

Ea ba horrela den eta aurrerantzean gure kexa guztiak eguraldiarekin lotuta-koak bakarrik diren.

“Herria dinamizatu eta erakargarri bihurtzeko zeregin handia dago. Hobeto esan, dena dago egiteko”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Moda eta antzerkixe

Moda kontuekin hasi gure dot gaur. Izen be, Ivan Vaz moda diseinadore aretxabaletarra han eta hemen ibilli da moda erakusketak egiten. Irailla bukaeran Gasteizen izen zan, eta Artiumen aurkeztu zittuen bere diseiñuek. *Prestige* petrolio ontzixek Galizian egin euen hondamenien oiñarriritu zan; horregatik jantzi illun xamarrek erakutsi zittuen eta modeluek ague tapaute urten euen. Horren ostien, Madrilleko *Pasarela Cibeles* dalakuen egon zan. Hortaz, ez dau geldi gure mutille.

Madrillera fan gure dauena baiñe momentuz gure artien dauen beste mutil bat **Kepa Errasti** da. Goitbn jairik jai ibiltziaz gain *Goenkale* teleaillien be ikusi dogu eta *Kuxkuxeroak* programan be bai. Antzerkixe ikestie ei da bere ametsa, ia ba lortzen dauen... zaletasune badauko-eta.

Bukaketako kirolariek aittetuko dittut; zer gara ba gu futbol barik... Joan zan domekan herriko mutiko ugari hurre-ratu zien Anoetara Realan partidue ikusten. Antza danez Realak 50 sarrera inguru bieldu eutsen UDAi eta hemengo batzordiek infantillen taldiei emutie erabaki euen. Ia urte batzuk barru mutiko horreitakon bat bertan jokaketan ikusten dogun...

UDAL-ZERGAK/ Azaroa bitartean pilatutako KPIren arabera izango dute datorren urteko udal-zergak

Datorren urterako udal-zergak igotzea onartu zuten atzo, eguena, egin zuten osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE

Atzo, eguena, egin zuten osoko bilkuran datorren urtean ezarriko diren zerga-ordenantzak onartu zituzten. Ordenantza horiek Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztietan izango dute eragina: ura, zaborra, automobilen eta etxebizitzaren gaineko zergak...

Astelehenean beharrenean eguenean egin dute aste honetan ezohiko osoko bilkura. Hainbat ordenantza onartu zituzten batzarrean, tartean, udal-zergak igotzea.

UDAL-ZERGEN IGOERA

Urtero egiten dute gora udal-zergak eta aurten ere horixe onartu du udalbatzak. Ondasun higiezin eta automobilen gaineko zergak, etxeetan egiten diren lan-txoen gaineko zergak, Udaleko zerbitzuak erabiltzearen eta administrazio lanak egitearren ordaindu beharrekoak... Udalak ematen dituen zerbitzuen artean honakoak daude: ura, zaborra, Pausoka Haur Eskola, Urats-Gain Zaharren Egoitza eta Udalak antolatzen dituen ikastaroak.

Udal-zerga horiek guztiek, baina, ez dute igoera bera izango. Hala ere, oraindik ezin dugu zehaztu zenbateko igoera izango duten;



Ondasun higiezin eta automobilen gaineko zergak igoko dituzte datorren urtean beste udal-zerga batzuekin batera.

izan ere, azaroa bitartean urtean zehar pilatutako KPI hartzen du oinarritzat Udalak.

Zerga-ordenantzaz gain, telekomunikazioen gaineko ordenantza aldatu eta etxabeetan etxebi-

zitzak egiteko ordenantza behin betiko onartu zuten.

SANEAMENDU LANAK


Ordenantzak alde batera utzita, Aralar eta Zeraia kaleetan egin

behar dituzten saneamendu lanen oinarriak onartu zituzten. Lan horiek ia 877 mila euroko aurrekontua dute, eta aurten hasi eta zortzi hilabeteren buruan bukatu gura dituzte.



Plazan aparkalekuak egiteko azterketak egiten ibili dira

Aurreko agintaldiko udalbatzak Herriko Plaza azpian aparkalekuak egiteko bidegarritasun azterketa egitea onartu zuen. Horretarako dirua gorde zuten, eta aste honetan bertan azterketak egiten ibili dira. Zuloak egin dituzte hainbat tokitan plaza azpian zer dagoen ikusteko. Azterketa horiek ematen duten emaitzen arabera aparkalekuak egin edo ez erabaki beharko dute. /M.A.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaial - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ELKARRIZKETA

ENERITZ PAGALDAI/MUNDUKIDEKO LANGILEA MOZAMBIKEN

“Bertakoek eroango dituzte proiektuak aurrera, eta guk gidatu egingo ditugu”

MIRARI ALTUBE

Urtebete egin du Eneritz Pagaldai aretxabaletarrak Mozambikeko Marrupa herrian. Egun batzuetarako etorri da gure artea, baina noiz itzuliko zain dago. Beste sei hilabete egingo ditu bertan, eta gero? Gerokoak.

Zer aurkitu zenuen Mozambiken heldu zinenean?

La2 telebista kateko errepor-taje bat ikusten nabilela iruditu zitzaidan: emakumeak ontziak buruan hartuta handik hona, lurrez eta lastoz egindako etxeak... Baina segituan egin nintzen hango bizimodura.

Kontzientziatuta joango zinen hemendik...

Bai, hala da. Marrupa Euskal Herriaren tamaina bertsua duen probintzia da, eta izen bera duen hiriburuan bizi naiz. Banekien ez nuela argirik eta telefonorik izango, ezta urik ere.

Zeintzuk zaudete Mundukideko proiektua aurrera eroaten?

Oreretako lagun bat, Mozambikeko beste bat eta hirurok.

Eta zein da proiektua?


Bost atal ditu proiektuak: nekezaz, hezkuntza, osasuna, azpiegiturak eta enpresa. Nik Humanitate eta Enpresa Zientzia ikasketak egin nituen; hortaz, enpresako atalaren ardura daukat.

Enpresak sortzen zabilta?

Bai. Urtarrilean ikastaro baterako deialdia egin genuen eta 1.400 lagun etorri zitzaizkigun. Handik 25 aukeratu genituen, eta enpresen kudeaketaren gaineko ikastaroa eman genien. Horren ostean, enpresa bat sortzeko proiektuak aurkez zituzten eskatu genien, bideragarritasun egitasmo eta guzti. Aurkeztutako artetik bost aukeratu genituen, eta horiek abian jartzea da gure helburua.

Hortaz, Mozambikeko kideek pentsatu eta eroango dituzte proiektuak aurrera?

Bai, hori da helburua, guk gidatu egingo ditugu baina ez besterik. Izan ere, gu geure herrira etorriko gara, eta eurak geratuko dira Mozambiken. GKE batzuek eskolak eta ospitaleak eraiki eta alde egiten dute, baina gero arazoak izaten dituzte: materiala falta dela... Mundukidek, oster, bertakoekin egiten du lan eta etorkizunerako gertatzen ditu.



M.A.

Zelako enpresak dira?
Alde batetik, bi errota ditugu. Izan ere, arto irinez egiten duten *xima* izeneko bola bat da euren elikadura oinarria, eta artoarendako errota behar dituzte; ekiloreekin olio egiteko enpresa da hiru garrena; nekazari produktuen komertzializazioaz arduratuko da laugarrena; eta bosgarrenak traktore batekin egingo du lan. Horiez gain, duela urte bi errepedeak be-

rritzeko enpresa sortu zuten, eta dagoeneko errepede bi egin ditu. Orain, beste errepede bat egiteko lehiaketa publikoa irabazi du.

Lanaren aurrean zelako jarrera daukate?

Lanerako gogo handiz daude; hori bai, baldintza batzuekin. Jendea lau hilabete ordaindu barik edukiz gero, zelan edukiko dute, bada, lanerako gogo?

Zuk asko erakutsi diezu, eta eurek zuri?

Izugarri. Batetik, lehentasunak aldatu dizkirate eta bestetik, pazientzia izaten erakutsi didate. Beste lasaitasun batekin hartzen dute bizitza, eta horrek ez du esan gura lanik egiten ez dugunik, 10 ordu inguru egiten ditut eta egunero. Oso zabalak dira, gainera, eta maitasuna oso samur ematen dute.

TXUTXU-MUTXUA



Giro polita izan zuten erretiratuek zapatuan

Joan zen zapatuan ospatu zuten herriko nagusiek Erretiratuen Eguna. Udalak antolatzen du, urtero, eta aurten ere giro polita izan da, baita umore ona ere. Menu goxoa eskaini zieten kirol etxera hurreratu ziren 280 erretiratuei. Gainera, eguna bukatzeko, sari ugari banatu zituzten: Mediterraneoan itsasontzian egiteko bidaia Gregorio Velazquezek jaso zuen, Aretxartek eman zuen 240 euroko txartela Benito Rodriguezek, telebista Maria Okinak, bideoa Pilar Arandok eta afaria Sinesio Diezek. /M.A.

LABUR

Bederatzi auzoetako alkateak izendatu zituen joan zen astean Arritxu Oliden alkateak

Joan zen astean izendatu zituen Arritxu Oliden alkateak herriko bederatzi auzoetako alkateak. Hona hemen izenak: Apetzaga-Etxebarrin, Migel Arenaza; Aozaratzan, Josu Mendieta; Areantzán, Julen Abasolo; Arkarazon, Gotzon Lete; Galartzan, Juan Gaztañaga; Goroetan, Alfredo Uribetxebarria; Izurietan, Luis Otadui; Larrinon, Jose Urkia; eta Oron, Mikel Uribetxebarria Aldalur.

Copreci kooperatibak lantegia zabaldu du Turkian, eta abenduan hasiko dira lanean

Aretxabaletan dagoen Copreci kooperatibak lantegia zabaldu du Turkian, Istanbuldik gertu dagoen Gebze herrian, hain justu. Abenduan hasiko dira lanean, eta hasieran 2,5 milioi euro baino gehiago inbertitzeko asmoa daukate. Zehaztu duten urteko fakturazioa, oster, lau milioi eurokoa da. Coprecik, horrela, etxetresna elektrikoetako osagaien fabrikatzaile gisa beste pauso bat eman du, batez ere gas bidezko egosketa negozioari dagokionez.

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

JAUSQRO OSTATUA
Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

AZKARATE
AROTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Matikua
jatetsxea
Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

ELKARRIZKETA

MIKEL URIBETXEARRIA/KIROL ZINEGOTZIA

"Proiektu garrantzitsuena kirol elkarte bateratua sortzea da"

AMAGOIA LASAGABASTER

Kirol zinegotzi berria da Mikel Uribetxebarria. Berak egin beharko die aurre herrian azkenaldian sortu diren krisi guztiei. Eta irtenbidea aurkitzeko proiektua esku artean dauka. Orain, baina, proiektu hori zelan bete pentsatu beharko du.

Kargu berria da zuretako. Zein asmo duzu?

Dagoeneko baditugu plan batzuk mahai gainean; ez dira lau urtetarako izango, baina zerbaitetan hasteko balioko dute. Gero, ideia eta proiektu berriak irten ahala, gauzak aldatuz joango dira.

Aurreko agintaldian hasitako proiektuek izango dute jarraipenik?


Bai, horretan ez dugu arazorik izan. Kirol teknikari bat daukagu eta horrek asko errazten digu lana.

Eta zeintzuk dira proiektu horiek?

Asko ditugu, baina nire ustez, garrantzitsuena kirol elkarte bateratua sortzearen aldeko egitasmoa da. Gaur egun herrian ditugun kirol elkarte eta taldeak egoera zailean daude. Orain arte horietan borondatez lanean ibili direnak aspertu egin dira, eta ulertzekoa da. Batzuek bizitza erdi eskaini diote horrelako talde bati, eta erreta daude. Horregatik guztiagatik egin gura dugu elkarte bat, talde horiek guztiek hobeto funtziona dezaten.

Zein egoeratan dago proiektu hori?

Talde bat eratzen gabiltza UDA futbol elkarte oinarri hartuta. Gaur egun UDA dago egoera larriean; gainera, herri honetan futbolak dauka kirol mailan pisu handien. Horregatik, hortik hasi gura izan dugu lanean. Egitura bat finkatuko dugu eta gero, beste talde batzuetara zabaltzea posible den ikusi beharko dugu. Izan ere, asmoa da kirol harrobia bultzatzea eta gero jarraipen



AMAGOIA LASAGABASTER

na ematea. Ahal izanez gero, boluntarioekin beharrez jende profesionalarekin lan egin gura dugu. Beharbada zerbait ordainduta... Bakoitzak ardura konkretu batzuk hartzea izango litzateke helburua.

Noiz bihurtuko da errealitate proiektu hori?

Guztiz egituratuta ez dagoen arren, 2004-2005 denboraldian hasi gura genuke proiektua abian jartzen. Bi urteren buruan, berriz, eginda egon beharko luke.

Ados daude talde guztiak? Iaz, behintzat, bai, ados azaldu ziren guztiak.

Beste erronkarik?
Bai, kirol instalazioak hobetu gura ditugu, batez ere, kirol

etxeok. Zaharkituta eta egoera kaskarrean daude. Hor, baina, arazo larriena dirua da. Dirurik eduki ezean ezin izango dugu ezer egin. Hala ere, gure asmoa da proiektu bat egitea, eta, jakina, proiektu horren balorazio ekonomikoa zehaztea.

Hainbat erretiratu kezu dira iaz kirol etxeok bazkide txartela garestitu egin zelako?

Horren arrazoia garbia da: gure ustez, inguruko ekonomia egoera ikusita oraingo erretiratuek ez dute ahalegin berezirik egin behar urteko kuota pagatzeko. Gainera, egoera ekonomiko kaskarrean daudenendako Ongizate Sailak dirulaguntzak bideratzen ditu.

FUTBOLA

Liga hasiera kaskarra egiten dabil UDAko preferente mailako futbol taldea

Ez dira ez ondo hasi UDAko preferente mailako mutilak ligan. Oraindik ez dute euren lekua aurkitu zelaian eta golak egitea kostatu egiten zaie. Joan den asteburuan galdu egin zuten Azkoitiko Anaitasuna taldearen aurka, etxean, 2-1. Partidua nahiko orekatua izan zen, batez ere lehenengo zatian. Atsedendialdiaren ostean, baina, azkoitiarrak izan ziren nagusi.

Dagoeneko bost jardunaldi egin dituzte eta Igor Gordobilek zuzentzen duen taldeak lau puntu besterik ez du eta 16. postuan dago sailkapenean. Oraingo asteburuan UDAk Donostiako Berio taldea izango du aurkari, etxetik kanpo. Ligan gora egiteko beharrezkoak izango dituzte hiru puntuok.

FUTBITOA

Amaitzear dago Arlutz-ek antolatutako futbito txapelketan parte hartzeko izenemate epea

Atzo zen azken eguna Arlutz tabernak antolatzen duen futbito txapelketan izena emateko. Hala ere, antolatzaileen esanetan, dudan dauden azken momentukoek ere parte har dezaten, luzatu egingo dute epe hori. Edozelan ere, futbito txapelketa datorren zapatuan, urriaren 18an, hasiko da. Izena ematearekin batera, talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu.

Arlutz tabernak ia urtero antolatzen du lagun koadrilen arteko futbito txapelketa. Partiduak Arlutz osteko kantxan jokatzen dituzte eta gehienetan oso giro ona egoten da. Antolatzaileen ustez, aurten zortzi bat talde ibiliko dira lehian. Hala ere, izenemate epea amaitu arte ez dute txapelketako egutegia egingo.

PILOTA

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte esku pilota txapelketako lehenengo partiduak

Astebeteko atzerapenaren ondoren, azkenean ere bihar, zapatua, jokatuko dituzte Kirol Zerbitzuak antolatutako pilota txapelketako lehenengo partiduak. Aurten bi mailatako norgehiagokak antolatuko dituzte: batean pilota bereziki jokatuko dute eta bestean, leunekin. Pilota berezien taldean 12 bikotek eman dute izena eta horietako seik bihar jokatuko dituzte lehenengo partiduak, Iturrigorri frontoian. Pilota leunen taldean, berriz, bost bikote ibiliko dira lehian, eta horiek zapatuan beharrez domekan jokatuko dituzte txapelketako aurreko norgehiagokak.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Berio

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Almen-Beraun

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Añorga

Lehenengo mailako nagusiak.

Zapatua. 17:00. Itugorri.

Aretxab.-Amezketak

Gazteak.

Zapatua. 17:00. Itugorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Anaitasuna 2 UDA 1

Preferentea.

UDA 1 Bergara 0

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 3 Beraun 0

Lehenengo mailako kadeteak.

Almen/UDA 5 Ilintxa 2

Emakumezkoen liga.

Almen/UDA 4 Eibar 1

Infantilak.

UDA 5 Herrera 1

Infantilak. Ohorezko liga.

Gasteiz 4 Almen/UDA 2

Futbol 8.

PILOTA

Aretxab. 22 Bergara 14

Bigarren mailako nagusiak.

Ordizia 22 Aretxab. 16

Lehenengo mailako nagusiak

Hernani 22 Aretxab. 17

Lehenengo mailako seniorrak..

Zumaia 14 Aretxab. 22

Lehenengo mailako seniorrak..

Banatzailleak

Egubakoitz arratsaldeetan Goienkaria banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

ERRETRATUZAHARRA

Santa Ritako lehenengo neska taldea

Aretxabaletako agustindar mojak eskolak ematen hasi zirenean sartu ziren lehenengo neskek ditugu erretratuan agertzen direnak. 10 eta 13 urte bitartean izango dituzte gehienek, adin asktarikoak daude-eta batuta; hortaz, 1955. urte ingurukoa izango da. Mojak eskolak ematen hasi aurretik Eskola Nazionalera joaten ziren guztiak, baina mojek eskola zabaltzerakoan neskatila askok bertara joatea erabaki zuten. "Eskola Nazionalak ez zuten batere fama onik; mojek, oster, bai. Hortaz, neska asko mojetara aldatu gintuzten gurasoek", dio Mari Jose Lasagabasterrek. Ez dago esan beharrik gaztelaniaz ematen zituztela eskolak, eta jakintza orokorrak jasotzeaz gain josten eta bordatzen ikasten zuten.

Lehenengo ilaran: Arantxa Galdos, Anjelinos Rodriguez, Mari Karmen Iturbe, Begoña Lizarralde, Felisa Pagaldai, ezezaguna, Lourdes Uralde eta Miren Agiriano.

Bigarren ilaran: Marilu Santamari-



na, Arantxa Arenaza, Itziar Zubizarreta, Ana Mari Gaztañaga, Maribel Antxia, Koro Bernal eta Juana Mari Olalde.

Hirugarren ilaran: Mertxe Mayoral, Nieves Arana, Pili Lonbide, ezezaguna, Maria Dolores Akizu, Mari

Jose Lasagabaster, Mentxu Madina-beitia, Ana Maria Martinez, Itziar Zubizarreta, Felisa Garai, Mila Urzelai, Amparo Asensio eta ezezaguna.

Laugarren ilaran makurtuta: Pilar Uribetxebarria, Mari Karmen Olazabal, Marilu Garziaetxabe, Ana Mari

Arbulo, Nati Arkauz, Mertxe Arregi, Rosarito Arce, Ana Mari Iñurrategi, Mari Paz Besa, Mari Tere Iturriaga eta Maribel Urzelai.

Argakia: Mari Jose Lasagabaster

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Agustindar mojen komentua

Agustindar mojak 1905. urte inguruan etorri ziren Aretxabaletara. Izugarrizko komentua eraiki zuten; izan ere, orduan moja asko bizi ziren bertan. Eliza eta ortua zituzten, gaur egun bezala. Handiegia zela ikusita, bota eta txikiagoa egin zuten lehengoaren inguruan. Libre geratu zen lekuan, bestalde, etxebizitzak egin zituzten, eta Errekabarren kalea sortu.



≈ 1940

Izugarrizko komentua zuten agustindar mojek: Euskadiko Kutxa dagoen lekuan hasi eta gaur egun komentua dagoen lekuraino.



2003

Urte gutxian asko aldatu da lehen komentua zegoen ingurua. Hala ere, hiru zuhaitzak errespetatu egin ziren eta oraindik bere lekuan dira.

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 10a / 140. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Herriko nagusiek omenaldi bikaina jaso zuten Erretiratuen Eguneko ospakizunean

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den domekan, hilak 5, Erretiratuen Eguna egin zuten herrian. 65 urtetik gorako 205 lagun elkartu ziren ospakizunean. Kiroldegian bazkari mundiala izan zuten eta gero, opariak egon ziren guztiandako. Ekitaldian Begoña Eraña Ongizate zinegotzia egon zen.

Omenaldi beroa jaso zuten joan den domekan, hilak 5, herriko erretiratuek. Udalak euredako propio bazkaria antolatu zuen herriko kiroldegian. Aurten 205 lagun elkartu dira Erretiratuen Eguneko ospakizunean.

MENU BIKAINA ETA OPARI HOBEAK

Udaleko Ongizate Sailaren eskutik menu berezia gertatu zieten herriko edadetuak: hasteko, entsalada mistoa izan zuten; gero, bakailaoa bizkaitar erara eta mihi egosia perretxiko saltsarekin; postreko, berriz, hostorezko tarta bainila-izozkiarekin eta kafea izan zuten.

Eguneko une politena, baina, bazkal ondorengoa izan zen: herriko dendek eta lantokiek emandako laguntzari esker opariak



OLAIA MONDRAGON

Joan den urtean bezala, aurten ere Rosalia Blancok eta Antoni Izagirrek jaso zuten Udalak edadetuenei ematen dien oparia.

banatu zituzten. 60 opari baino gehiago zozketatu zituzten erretiratuen artean.

Opari berezienak herriko nagusienendako izan ziren: Rosa-

lia Blancok martitzenean, hilak 7, bete zituen 96 urte eta omenaldian lore sorta ederra jaso zuen. 94 urte dituen Antonio Izagirrek, berriz, txapela jaso zuen Begoña

Eraña Ongizate zinegotziaren eskutik.

Erretiratuen Eguna Eugenio Belokik eskainitako dantzaldiarekin amaitu zuten.

Aurten 205 lagun elkartu dira Udalak antolatutako Erretiratu Egunean

Dendek eta lantokiek emandako laguntzari esker banatu zituzten opariak

Rosalía Blancok (96 urte) eta Antonio Izagirrek (94 urte) jaso zituzten opari berezienak

LABUR

Datozen lau urteotarako plana elizateetarako

Oraintsu elkartu dira elizateetako eta Leteko auzo-alkateak Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoarekin eta elizateetako zinegotzi Javier Villarrek. Batzarraren helburu nagusia zen orain dela gutxi hautatu dituzten auzo-alkateekin lehenengo hartu-eman izatea. Dena dela, Bengoak elizateetan landu beharreko hainbat punturen gainean egin zuen berba, eta alkateoi auzo bakoitzeko auzotarrek dituzten gabeziak eta premiak aztertu eta datozen lau urteotarako plana egiteko eskatu zien. /A.G.

Eskoriatzako gazte bat hil da auto istripuan

Lidia Bartol 23 urteko gazte eskoriatzarra joan den domekan hil zen Leintz Gatzagan, Gipuzkoa eta Araba arteko mugan izan zen auto istripuan. Laurak inguruan gertatu zen ezbeharrak; Lidia Bartolek gidatzen zuen autoak eta beste auto batek aurrez aurre jo zuten. Auto barruan harrapatuta gelditu zen Lidia, eta atera zutenerako hilda zegoela jakinarazi zuen bertara joandako medikuak. Martitzenean egin zituzten Lidia-aren aldeko hileta elizkizunak.



HIRIGINTZA

Oztopo arkitektonikoak deuseztatzeko ahaleginetan Udala

AINTZANE GARDOKI

Aurreko agintaldiko arduradunek Eskoriatzan zeuden oztopo arkitektonikoak deuseztatzeko lanari ekin zioten. Hain justu ere, 2000n lau urtetarako plana egin zuten. Eskoriatza da oztopoak kentzeko Gipuzkoan lanean dabiltzan zazpi herrietako bat.

2000n herriko oztopo arkitektonikoak deuseztatzeko plana egin eta gero, plana onartu egin zuten orduko Udala osatzen zutenek. Eskoriatzak zituen oztopo arkitektonikoak zeintzuk ziren ikusi eta aztertu ondoren egin zuten plana adituek. "Lehenengo, egoeraren diagnostikoa egin zen; hirigunea, kale nagusiak eta eraikuntza publikoak aztertu ziren gehienbat. Gero, sumatu ziren premien gainean lanean hasi ahal izateko, proposamena egin zen", esan digu Juan Karlos Bengoak.

ADIR enpresak bere gain hartu zuen plana egiteko ardura. Herriak zituen lehentasunak lau fase-tan egiteko proposamena egin zuen enpresa horrek.

BATZORDE BEREZIA ABIAN

"ADIRek planteatutako lehentasunekin ez ginen guztiz bat etorri. Izan ere, adibidez, zaharren egoitzako oztopoak kentzea planteatu zuen lehentasun moduan. Hori oso ondo dago, baina zaharren egoitza ez da Udalarena; beraz, ezin zitzaion ho-

Udalarenak diren eraikinetan dagoeneko nabariak dira egin diren lanak

Gipuzkoan zazpi herri ari dira oztopo arkitektonikoak deuseztatzeko lanetan

ri heldu. Hori adibide bat besterik ez da", esan digu Bengoak. Egoerari irtenbide egokia eman guran batzorde berezi bat osatu zuten Udaleko arduradunek: "Hirigintzako, gizarte ongizateko, obra eta zerbitzuetako eta gutxitu psikiko eta fisikoen ordezkariak osatu zuten batzorde hori. Lehentasunak aldatu egin genituen eta bi erronka nagusi zehaztu: batetik, ibilbide luzeko kaleak -Aranburuzabala, San Pedro eta Gaztanadi, adibidez-; eta bestetik, Udalarenak diren eraikinak".

Lehenengo lanak egin dira. Udalarenak diren eraikinetan nabariak dira dagoeneko egin dituz-



ARTXIBOA

Herriaren goiko aldean Olaetako malda egokitu dute azken egunotan.

ten lanak; udaletxea zaharberritzerakoan oso kontutan hartu zen oztopo arkitektonikoen kontua. Kultura etxean, liburutegi berrian eta kiroldegian ere egin dituzte oztopoak kentzeko lanak: "Hirigintza eta obretatik egiten diren lanetan ere etengabe egiten da oztopoak kentzeko ahalegina. Gorosari plazan, Olaetako aldapan eta Musika Eskolan egin dira oztopoak kentzeko lanak. Ekimen pribatuak ere oso kontuan hartzen da hori guztia".

Lau urteko plana egin zuten 2000n, baina ezin izango da lau ur-

teren buruan osatu, eta horren ondorioz, herrian dauden oztopo arkitektonikoekin amaitu: "Ia miloi bat euroko aurrekontua du planak. Diru asko da batetik, eta bestetik, uste duguna baino gehiago dago egiteko. Lehen osatu zen batzordea laster batuko da berriro, egindakoaren jarraipena egin eta datozen urtetarako plana egiteko", esan digu Juan Karlos Bengoak.

Gipuzkoan zazpi herri ari dira buru-belarri oztopo arkitektonikoak deuseztatzeko lanetan. Eskoriatzako herria aitzindari izan da hasieratik.

TELEFONJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

HITZALDIA

Documento de voluntades anticipadas hitzaldia egingo dute urriaren 14an, 18:30ean, kultura etxean. Hitzaldia Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarteko kideek egingo dute.

XIV. MENDI BIZIKLETA IBILALDIA

Eskoriatzako Udalak antolatuta, datorren urriaren 19an XIV. Mendiko Bizikleta Ibilaldia izango da. 09:30ean hasiko da proba, eta txirrindulariek ordu erdi lehenago eman beharko dute izena Herriko Plazan.

AXTROKIRENAGENDA

ARIMA BELTZAREN KONTZERTUA

Gaur, hilak 10, Arima Beltzaren blues-rock kontzertua antolatu du Euskara Elkartek. Kontzertua gaztetxean izango da, 22:30ean.

LABUR

Amuska emakume taldeak Burgosera bidaiara egingo du datorren asteburuan

Eskoriatzako Amuska emakume taldeak datorren zapatuan, hilak 18, Burgosera txangoa egingo du. Bribiesca, Oña eta Poza de la Sal herriak bisitatu dituzte. Turismo gidari eta guzti bisitatu dituzte Bribiesca eta Oña. Alde zaharra eta bertako historiari jabetzeko aukera paregabea izango dute, beraz. Datorren zapatuan 08:30ean aterako da autobusa beheko geltokitik. Amuskak Eskoriatzako emakume guztiei egin gura die bidaiari parte hartzeko gonbidapena. Izena eman gura duenak jo dezala Amuskara.

'Bertsotan Euskara Landu' ikastaroa jarri gura du abian Kontzejupe plataformak

Bertsotan Euskara Landu ikastaroa antolatu du Kontzejupe herri plataformak. Xanti Iparragirrek emango du ikastaroa. "Ez da bertsotako eskola bat, euskara eta euskal kultura beste era batean ikasteko aukera bat baizik. Ondo pasatuz euskara hobetu eta euskal kulturaz gehiago jakitea da helburua. Eskoriatzar guztioi zuzenduta dago ikastaroa", esan digu Kontzejupeko kide Lore Diaz de Gereñuk. Ikastaroa azaroan hasiko da eta asteen behin, martitzene-tan, 19:00etatik 20:00etara izango da. Izena eman kultura etxean.

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

Txalaparta
taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

GATZAGAKO I. MENDI BIZIKLETA IRTEERA

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, txirrindulari ugari

AINTZANE GARDOKI

Joan den domekan, hilak 5, egin zen Gatzagan I. Mendi Bizikleta Irteera. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, txirrindulari ugari batu ziren 27 kilometroko ibilbidea egiteko. Proba amaituta, txirrindulariak pozik azaldu ziren bai ibilbidearekin bai antolatzaileen lanarekin.

Euria bota ahala egiten zuen domeka goizean, txirrindulari proba hasi aurretik. Dorleta Txirrindulari batzordeko kideek zeruari begiratzen zioten etengabe. Probak Dorletako santutegian hasi behar zuen, baina eguraldi txarra zela eta, herrian bertan hasi eta amaitu zen.

Eta batzordekideek une batez pentsatu zutenaren kontra, txirrindulari ugari eman zuten izena irteeran parte hartzeko: "70 bat lagunek hartu zuten parte. Eguraldia oso txarra izan zen arren, jendeak ondo erantzun zuen. Kanpotik txirrindulari ugari etorri ziren. Ibarretik asko, eta Gatzagako bertako txirrindulari askok ere hartu zuten parte", esan digu Jon Sasiainek.

HERRIKO GAZTETXOAK, INDARTSU

Bi ibilbide prestatu zituzten antolatzaileek: 27 kilometrokoa nagusien-dako eta 5 kilometroko ibilbide laburra herriko gaztetxoendako. "Gatzagako gaztetxo batek baino gehiagok -12 eta 14 urte artekoak-



70 txirrindulari hartu zuten parte Gatzagako I. Mendi Bizikleta Irteeran.

JON SASIAIN

nagusien ibilbidea egin zuten eta maila ona erakutsi, gainera", gaineratu digu Sasiainek. Gazteagok, berriz, -5 eta 10 urte artekoak Marisanetik Landara joan-etorria egin zuten. "Txirrindulariek oso maila ona erakutsi zuten. Kontuan hartu behar da ez zela lasterketa bat, ibilbide bat baizik. Lehen esan bezala eguraldiak lagundu ez zuen arren, pozik gaude".

Proba amaituta, txirrindulariak pozik zeuden ibilbidearekin.

Ohikoak diren kolpeak eta matxuraren bat edo beste izan ziren ibilbidean zehar: "Orokorrean dena ondo joan da. Bestetik, lau gurpileko bost moto izan genituen laguntzaile, eta horiek egindako lana benetan eskertzekoa izan zen".

Ibon Oñederra gatzagarra izan zen proba amaitzen bigarrena. Irteera amaitu eta gero, hainbat produktu zozketatu zituzten parte-hartzaileen artean. Amaitzeko, luntxa egin zuten Gatzagan bertan.

TXUTXU-MUTXUA



Rosario kaleko gatzagarrak, giro onean

Rosario kaleko lagunek txikiteoarekin hasi zuten jaia, trikiti soinu eta guzti. Horren ondoren, kaleko 31 lagunek elkarrekin bazkaldu zuten: txorizoa, buzkantza, entsalada, buztana eta pastelak izan zituzten bazkaritarako. Jai giro aparta izan zuten, gauak ondo jo arte. Datorren urtean ez ei dute hutsik egingo!

LABUR

Goiuri Eriz eta Saul Jimenez dira iraileko azkeneko astean Gatzagan jaio diren umeak

Saul Jimenez Campos Arrasaten jaio zen joan den irailaren 24an; Goiuri Eriz Goiburu, berriz, Gasteizeko Txagorritxu ospitalean jaio zen irailaren 26an. Neska-mutilok eta euren amak, Virginia eta Matxalen, oso ondo daude. Aurten, 2003an, hiru ume jaio dira Leintz Gatzagan.




- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540



LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61

AZKOAGA
ESTANKOA943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastafadul suzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



Ze barri?

Izan zaitez zeu
ere berriemaile!

Zure taldearen,
auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa
emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Maulanda *merenderoa*



MAULANDA MERENDEROA

Maulanda Auzoa, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Eguneko
menua



**UDAZKENA
NEGUA
2003**

Garibai Etorbidea, 2-6 Arrasate

Bezerearentzako Arreta-Telefonoa:
902 222 152

Badugu bezerearentzako arreta-telefonoa, behar duzun guztian zutaz arduratu ahal izateko.
Telefonozko arretaren ordutegia: 9:00-13:00 eta 15:30-18:30

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com



ALTUNA
HARATEGIA
San Pedro 3
ESKORITATZA



ANGELINES
AUTOZERBITZUA
Mitarte 16
ARETXABALETA



BEATRIZ
ARRANDEGIA
Otalora 19
ARETXABALETA



BENGOA
HARATEGIA
Durana 9
ARETXABALETA




CHARTER
JANARI DENDA
Aranburuzabala 3
ESKORITATZA



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
Errekabarren 14
ARETXABALETA



ETXABE
HARATEGIA
Durana 4
ARETXABALETA



**OSAGAI
ONENAK
GURE KONTU**

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



IMANOL
JANARI DENDA
Gorbea 8
ARETXABALETA



IOSU
HARATEGIA
Mitarte 1
ARETXABALETA



JON
HARATEGIA
Loramendi 1
ARETXABALETA



LEIBAR
ARRANDEGIA
Loramendi 1 / Mitarte 1
ARETXABALETA
Aranburuzabala 7
ESKORITATZA



PAGALDAI
HARATEGIA
Gaztainadui 15
ESKORITATZA



ZUBIA
HARATEGIA
Santa Ana 11
ESKORITATZA